



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 22a

55. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-24/PES-00001. Galdera, toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00002. Galdera, hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokolei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00003. Galdera, “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00004. Galdera, medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-24/PES-00005. Galdera, Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00006. Galdera, Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00007. Galdera, datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00008. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00009. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00010. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00011. Galdera, I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00012. Galdera, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00013. Galdera, “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- 11-24/PES-00014. Galdera, hondakinen erakundea bultzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-24/PES-00015. Galdera, Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00016. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00017. Galdera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00018. Galdera, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00019. Galdera, desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakitekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

F saila:
GALDERAK

11-24/PES-00001. Galdera, toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak toki-administrazioetan katu-koloniak kudeatzeko programak ezartzeko protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00001) Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legeari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Animalien eskubideak eta ongizatea babesteko martxoaren 28ko 7/2023 Legeak 40. artikuluan ezartzen duenez, autonomia erkidegoei dagokie protokoloak sortzea udal mugarteetan katu koloniak kudeatzeko programak ezartzeko erreferentziazko gutxienerako betekizunen eta prozeduren inguruan.

Lagun egiteko animaliak Nafarroan babesteari buruzko apirilaren 4ko 19/2019 Foru Legea garatzeko erregelamendua onesten duen urriaren 26ko 94/2022 Foru Dekretuak katu koloniei buruzko I. kapituluan (57-64. artikulua, biak barne) arautzen du Nafarroan toki erakundeek katu kolonien inguruan egin behar duten kudeaketa.

Azpimarratu behar da Nafarroa dela katu koloniak kudeatzeko prozedurak eta betekizunak arautu dituen autonomia erkidego bakarra, animalien babesari buruzko lege batean ezarritakoa erregelamenduz garatzen duen arau baten bitartez.

Nafarroan araututakoak heldu egiten die 7/2023 Legeak ezartzen duenez katu koloniak kudeatzeko protokolo guztiek izan behar dituzten gutxienerako alderdiei. Edonola ere, estatuko lege horren alderdietako batzuen kasuan, uste dugu are gehiago zehaztu beharko lirakeela, Foru Dekretua indarrean izan den urtebetean zehar hauteman ditugun udaletako arazo eta premiei erantzuna emate aldera.

Nahiz eta 7/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa aplikatzekoa izan dadin erregelamendu bidez arautu beharrik ez egon, Animalien Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak helarazi digu protokolo batzuk idatziko dituztela, legean katu koloniak kudeatzeko ezarritako alderdi guztiak garatzen dituztenak. Horrela, autonomia erkidegoek eskura izanen dute dokumentu bateratu bat, protokoloak Espainia osoan modu koordinatuan eta homogeneoan aplika daitezela errazteko.

Dokumentu horren zain gaude, baina, jaso artean, irizten dugu gure foru Dekretuan araututakoak jaso egiten dituela udalek katu koloniak behar bezala kudeatzeko beharrezko alderdiak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00002. Galdera, hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokoloei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak hiri-eremuan ehiza-espezieen aleak daudenean jarduteko protokoloei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak 11-24/PES-00002 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, hiri eremuan

ehiza espezieetako aleak egonez gero jarduteko protokoloei buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago jarduketa protokolorik Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eta polizia kidegoen artean galderan hizpide diren jarduketei heltzeko, jarduketok ez baitaude lotuta ingurumeneko gaiekin, baizik eta herritarren segurtasunarekin lotuta alderdiekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00003. Galdera, “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 12ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00003); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Honako hau jakin nahi dut 40.000 €-ko zuzkidura duen “Gertuko edukien agregatzaile baterako proiektua idaztea” 060003 06100 2276 921500 aurrekontu-partidari buruz:

1.- Zer ekintza egin da horren baitan? Esleipen-hartzaileen xehetasunak eta ekintza bakoitzari buruzko informazio xehakaturia jaso nahi dut.

Horri dagokionez, honako ekintza hauen berri eman nahi da.

Zuzeneko kontratazio bat (kontratu txikia) Nafarroako MM Consulting Financiero SL sozietatearekin, pleguak egiteko laguntza teknikoa emateko.

Horrez gain, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zen ikus-entzunezko agregatzaile baterako proiektua idazteko adjudikaziorako lizitazio publikoaren iragarkia, aurreko puntuan aipatutako kontsultariarekin egindako pleguekin bat; aipatutako iragarkia eta dokumentazio administra-

tiboa eta teknikoa honako esteka honetan daude eskuragarri: <https://hacienda.navarra.es/sicpportal/mtoAnunciosModalidad.aspx?Cod=230420124255D26051A4>

2.- Bukatu al dira esleitutako lanak? Hala baldin bada, horien kopia jaso nahi dut.

Uztailaren 17an eta 28an, kontratua adjudikatu zitzaion Flumotion Services SA merkataritza sozietateari, 25.652 eurokoa zenbatekoan, BEZa barne. Iragarkia eta dokumentazio administratiboa eta teknikoa esteka honetan daude eskuragarri:

<https://hacienda.navarra.es/sicpportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=1000&Ticket=24011013375829CEAB0C>

3.- Esleitutako lanen bat oraindik bukatu gabe baldin badago, noizko bukatuko dela aurreikusten duzue?

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioan jasotako agregatzailearen proiektua 2023ko amaiera aldera entregatu zen, eta gaur egun berrikusteko fasean dago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 29an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-24/PES-00004. Galdera, medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak medikuen eta erizainen lanbide-karreraren eskaerari buruzko espedienteak ebazteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00004 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, mediku eta erizainen lanbide-karreraren eskaeren espedienteak ebazteari buruz, honako hau jakiteko: “mediku eta erizainen lanbide-karreraren maila igotzeko 1.700 eskaera ebatzizgabeegi dagokienez, zer aurreikuspen darabil Osasun Departamentuak horiei erantzuna emateko? Noiz kobratu ahal izanen dute profesional horiek lanbide-karrerari lotutako pizgarri ekonomikoa?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Jakin badakigunez ebatzi gabeko hainbat eskaera daudela, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Lan Harremanetako diplomadun bat gehituko du Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Profesionalen Garapen eta Parte-hartzerako Zerbitzura lanbide-karrerako eskaera horiek izapidetze aldera.

Aurreikusten da 2024rako aurrekontuan dagozkion aurrekontuko partidak zuzkitzea eskaera horiek ordaindu ahal izateko adina diruz.

Adierazi behar da abenduan 148 ebazpen eman zirela (139 langile diplomadunenak eta 9 langile fakultatiboenak). Urtarrilean 188 ebazpen eman ziren (131 langile diplomadunenak eta 57 langile fakultatiboenak). Azkenik, otsailean 183 ebazpen emanen dira (121 langile diplomadunenak eta 62 langile fakultatiboenak). 419 ebazpen horiek ordainduko dira behin kasuan kasuko aurrekontuko partidak 2024rako aurrekontuetan jasotako zenbatekoarekin zuzkitzen direnean.

Bestalde, aurreikusten da batzordeek merezimenduak egiaztatzea eta maila esleitzeko proposamena ematea otsailean gutxienez ere 181 espedientetan (104 langile osasun diplomadunenak eta 77 langile fakultatiboenak). Horien ebazpena martxoan zehar emanen da.

Gainerako eskaerak hurrengo hilabeteetan egiaztatu, ebatzi eta ordainduko dira.

Kontuan hartuta joan den urtean izapidetutako eta ebatzitako eskaera kopurua, eta lan hori egiten duen taldean izandako errefortzua, aurreikusiten dugu aurtengo hirugarren hiruhilekoaren amaierarako hizpide diren 1.700 eskaerak ebatzi eta ordainduko direla, betiere eskaerak izapidetu, ebatzi eta ordaintzeko langileen taldea egonkor mantentzen bada eta gorabeherarik ez badago.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00005. Galdera, Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Europar Batasunak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz

erantzuteko galdera egin du (11-24/PES00005). Hona hemen galdera horrek dioena:

2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europar Batasuneko batezbestekoarekin parekatu arte”.

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Etxebizitzako inbertsio publikoaren datuak BPGdaren portzentajearen EUROSTATen arabera:

Total general government expenditure on housing and community amenities, 2021, % of GDP

	Housing and community amenities	Housing development	Community development	Water supply	Street lighting	R&D Housing and community amenities	Housing and community amenities n.e.c.
EU*	0.6	0.2	0.2	0.1	0.1	0.0	0.0
euro area 19*	0.6	0.2	0.3	0.1	0.1	0.0	0.0
euro area 20*	0.6	0.2	0.3	0.1	0.1	0.0	0.0
Belgium	0.4	0.1	0.1	0.0	0.1	0.0	0.0
Bulgaria	1.0	0.4	0.1	0.2	0.1		0.2
Czechia	0.6	0.2	0.2	0.1	0.1	0.0	0.0
Denmark	0.1	0.1	0.0	0.0	0.0	0.0	0.0
Germany*	0.5	0.1	0.2	0.0	0.0	0.0	0.1
Estonia	0.5	0.1	0.1	0.0	0.2	0.0	0.1
Ireland	0.6	0.1	0.1	0.3	0.0	0.0	0.0
Greece	0.3	0.0	0.0	0.2	0.1	0.0	0.0
Spain*	0.5	0.2	0.0	0.1	0.1	0.0	0.0
France*	1.3	0.4	0.6	0.1	0.1	0.0	0.0
Croatia	1.3	0.2	0.4	0.3	0.1	0.0	0.3
Italy	0.5	0.1	0.2	0.1	0.1	0.0	0.0
Cyprus	1.9	0.3	0.9	0.5	0.2	0.0	0.0
Latvia	1.0	0.3	0.3	0.1	0.2	0.0	0.1
Lithuania	0.6	0.2	0.3	0.0	0.1		0.1
Luxembourg	0.6	0.3	0.1	0.1	0.0	0.0	0.1
Hungary	0.8	0.2	0.1	0.1	0.1	0.0	0.3
Malta	0.5	0.1	0.3	0.1	0.1	0.0	0.0
Netherlands	0.4	0.2	0.2	0.0	0.0	0.0	0.0
Austria	0.3	0.2	0.0	0.0	0.1	0.0	0.0
Poland	0.5	0.2	0.0	0.1	0.1	0.0	0.0
Portugal*	0.6	0.2	0.2	0.2	0.0	0.0	0.0
Romania	1.1	0.3	0.1	0.2	0.1	0.0	0.4
Slovenia	0.5	0.3	0.0	0.2	0.1	0.0	0.0
Slovakia	0.5	0.1	0.2	0.0	0.1	0.0	0.1
Finland	0.4	0.0	0.3	0.0	0.0	0.0	0.1
Sweden	0.7	0.2	0.3	0.1	0.0	0.0	0.0
Iceland	0.6	0.2	0.4	0.0	0.1	0.0	0.0
Norway	0.7	0.4	0.0	0.4	0.0	0.0	0.0
Switzerland	0.2	0.0	0.1	0.1	0.0	0.0	0.0

Source: Eurostat (gov_10a_exp)

* provisional

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00006. Galdera, Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Nafarroak etxebizitzaren arloan egiten duen inbertsio publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES00006). Hona hemen galdera horrek dioena:

2021-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batezbestekoarekin parekatu arte”.

Zein da abiapuntua? Etxebizitzaren arloan gaur egun zein da egiten ari den inbertsio publikoa? Guztizko zenbatekoa eta inbertsioaren ehunekoa.

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

NASTATEk ez du informaziorik etxebizitzaren inguruko jarduketak barne hartzen dituenik, eta, beraz, azken bi ekitaldietako Etxebizitzako ZNaren gastuari buruzko informazio hau azpimarratu nahi dugu:

– 2022an, “Lurzorua eta etxebizitza kudeatzea” aurrekontuko proiektuan jasotako aurrekontu betebeharrak 46.413.584,03 eurokoak izan ziren.

– 2023an, “Lurzorua eta etxebizitza kudeatzea” aurrekontuko proiektuan jasotako aurrekontu betebeharrak 66.002.618,08 eurokoak izan ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00007. Galdera, datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak datozen lau urteetan Europako batez bestekora iristeko asmoz etxebizitzaren arloan egin beharreko inbertsio publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00007). Hona hemen galdera horrek dioena:

2021-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta plural baterako programa-akordioak honako hau jasotzen du etxebizitzaren arloan:

“1. Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa handitzea, Europako batezbestekoarekin parekatu arte”.

Etxebizitzaren arloan, zer inbertsio publiko egiteko asmoa du Nafarroako Gobernuak lau urte hauetan Europako batezbestekora iristeko? Zehaztu guztizko kopurua eta inbertsioaren ehunekoa, urteka.

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2024ko ekitaldi honetan Etxebizitzan egindako inbertsio publikoa 125 milioi euro ingurukoa izanen da, Nafarroako Gobernuaren aurrekontu propioaren eta Nasuvinsa sozietate publikoak eginen dituen inbertsioen artean; edozelan ere, zifra globala ezin da guztiz zehaztu Nasuvinsa enpresa publikoak merkatu aldakor batean diharduelako, eta merkatu hori finantza kredituen menpe dagoelako oso.

Zehaztasunez Nafarroako 2024ko Aurrekontuetako Proiektuetan kontsignatutako 111.953.737 euroak bakarrik ahal dira aipatu, hau da, % 63,58ko hazkundea 2023ko ekitaldiarekin alderatuta.

Kontseilari honen asmoa da datozen urteetan hazkundearen bidetik jarraitzea etxebizitza publiko inbertsioaren Europako batezbestekora hurbiltzen jarraitzeko gure komunitateko barne produktu gordina (BPGd) erreferentzia hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00008. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko aurrez aurreko arretari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak 11-24/PES-00008 informazio eskaera egin du. Hona hemen informazio eskaera horrek dioena:

Etxebizitza Departamentuan zenbat pertsonak artatzen dituzte kontsultak eta izapideak modu presentzialean? Zein da ordutegia?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusian bi pertsonak ematen dute arreta presentziala kontsulta eta izapideetarako, alde zuzeneko hitzordu barik, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:30era bitarte.

Gainerako langileek alde zuzeneko hitzordua eskatuta ematen dute arreta, eskatzaileekin hitzartutako ordutegian, eta ezertan galarazi gabe alde zuzeneko hitzordurik gabeko izapideak eta kontsultak artatzea unearen, gaitasunaren eta planteatutako kontsultaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00009. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko telefono bidezko arretari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak 11-24/PES-00009 informazio eskaera egin du. Hona hemen informazio eskaera horrek dioena:

Etxebizitza Departamentuan zenbat kontsulta eta izapide artatzen dira egunero telefono bidez?

Zenbat pertsona aritzen dira lan horretan eta zein da ordutegia?

Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Etxebizitza Zuzendaritza Nagusian bi pertsonak ematen dute arreta telefonoz kontsulta eta izapideetarako, aldez aurreko hitzordu barik, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 14:30era bitarte.

Egunean arreta ematen den kasuen kopurua 30 eta 60 artekoa da.

Horrek ez du galarazten gainerako langileek telefonozko arreta zehatzagoa eta partikularragoa ematea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00010. Galdera, Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuko Interneten bidezko ohar-zerbitzuaren desaktibazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (-24/PES-00010). Hona hemen galdera horrek dioena:

Zerk eragin du Etxebizitza Departamentuak interneten bidezko ohar-zerbitzua desaktibatzea?

Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz jakinarazten duena:

Nafarroako Gobernuaren etxebizitzako ataria (http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Vivienda/Ciudadanos/) Nafarroako Gobernuaren atari nagusiari (www.navarra.es/eu) atxikitako webgunea da.

Etxebizitzako atari horretan unean-unean informazio eguneratua ematen da birgaitzeko prozesu eta laguntzei buruz, etxebizitza babestuak alokatzeko, saltzeko eta eraikitzeko prozesuei buruz, alokairurako eta erosketarako askotariko laguntzei eta abarri buruz.

Webgune horretan ez da interneten bidezko ezein ohar zerbitzu desaktibatu, inoiz ere ez delako zerbitzu hori egon webgune horretan.

Nafarroako Gobernuak herritarrek iradokizunak egiteko postontzi bat dauka Interneteko atarian, eta, horrez gain, Gobernu Irekiaren webgunean

esteka bat ere badu, iradokizunak eta erreklamazioak egiteko apartatu bat duena. Bertan jasotakoak zuzenean bidaltzen dira gaian eskuduna den departamentura.

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/iradokizunak-erreklamazioak>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-24/PES-00011. Galdera, I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak I+G+b alorreko eskumenaren eskualdaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du I+G+b transferentziari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

11-23/PEI00590 eta 11-24/PEI00039 informazio eskaerei erantzuteko jakinarazi zenez, azaroaren 28ko bilkuran Nafarroako Gobernuak onetsi egin zuen Transferentzia Batzordean izanen zituen zortzi kideen izendapena. Organo horrek du eskumena Gobernu zentralarekin negoziatzeko estatuko zerbitzu jakinak Foru Komunitateko gobernuarekin eskualdatzearen inguruan, Estatuko Administrazioaren beste zortzi ordezkari ditu eta berorren presidente dira Nafarroako Gobernuaren lehendakariordea eta Lurralde Politikako ministroa.

Urtarrilaren 17an abian jarri ziren transferentzia horiek gauzatzeko alde biko lanak sustatzeko izapide formalak, eta, alderdi formalak ale batera utzita, taldeek jadanik dihardute gai teknikoaren inguruan lanean.

Hori horrela, gaur egun Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateko Ministerioarekin batera alderdi tekniko horiek osatzen ari gara.

Gobernu biek dugu konpromisoa Nafarroako autogobernua garatzearekin. Erritmo onean ari gara aurrera egitean, eta errealistak izaten.

Gauzak behar bezala nahi ditugu egin, eta teknikoki egokiro osatuta gera dadin guztia, Nafarroako Gobernuak berau osatzen duten hiru alderdi politikoek izenpetutako akordio programatikoa jasota dituen erronkak betetzeko.

Nafarroako Gobernuarentzat legegintzaldiko konpromisoa da, aurrera egiten ari gara, zuhurtziaz eta leialtasunez lan egiten, frogatu delako bide horretatik lortzen direla emaitza onak.

Aurrerapen esanguratsuak eta beharrezkoak lortzen direnean berri emanen da, egoki denean; diskrezioz lan egitea akordiorako eta adostasunerako lagungarria da.

Ministerio eskudunek adierazi digute lanerako erabat prest daudela.

Anbiziotsuak izan nahi dugu; legegintzaldi honetan amaitzeko muga ezarri diogu gure buruari, gure foru araubidea ekinez defendatu behar delako.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00012. Galdera, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroaren irekierari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-24/PES-00012):

- Departamentuak noiz aurreikusten du irekiztea El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroa?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

2021ean izandako uholdearen ostean, eta egoitza birmodelatu eta hainbat bizikidetzako unitate jartzeko proiektua medio, El Vergel zahar-egoitzaren eguneko zentroak lehen hartzen zuen espazioa beste erabilera batzuetarako izanen da. Planteatu da eguneko zentroa eramatea lehen El Vergel erretiratuen klubak erabiltzen zituen instalazioetara, eta horretarako beharrezko obrak egin behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-24/PES-00013. Galdera, “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak “Seme-alabak” izeneko taulan agertutako anomalia bati buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak PES-13 galdera egin du, honako hau:

– Parlamentari naizen honek egindako PEI-00295 eskaerari Departamentuak igorritako Excel artxiboan honako anomalia hau ikusten ahal da: “Seme-alabak” taulan, “Inkesta kopurua”-n xehakaturako zenbatekoen batura 637koa da; osotara, berriz, 686 dira. Zeri zor zaio alde hori?

Hona hemen bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta

Euskarako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galderan hizpide diren taulek euskararen transmisioaren datuak jasotzen dituzte, eta xede den populazioa da Nafarroan bizi diren 16 urteko eta gehiagoko biztanleak, 3 eta 15 urte arteko seme-alabaren bat dutenak, biak barne.

Taulek bi informazio gurutzatzen dituzte: euskararen transmisioari buruzkoa eta gurasoen lehen hizkuntzari eta hizkuntza gaitasunari buruzkoa.

Adierazitako tauletan ikusitako aldea honen ondorioa da: nahiz eta 686 inkesta egin, 49 inkes-

tatan ez zen informaziorik egon gurasoaren lehen hizkuntzari edota euskararen ezagutzari buruz. 49 kasu horietan gurasoetako bakar baten informazioa bakarrik egon zen, eta, horregatik, ezin ian ziren adierazitako tauletan sailkatu, eta guztien arteko batuketa horizontalaren emaitza 637 da ($686 - 49 = 637$).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 30ean

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-24/PES-00014. Galdera, hondakinen erakundea bultzatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak hondakinen erakundea bultzatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 19ko 7. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hondakinen erakundearen bultzadari buruz (11-23/PES-00014). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Hondakinen erakundearen eredu bakarra sustatuko dugu Nafarroa osorako, eta Nafarroako

Foru Komunitateko Administrazioa izanen du buru. Figura horrek eskumenak hartuko ditu bere gain hondakinak garraiatu, tratatu edota ezabatzeko esparruetan, eta udalerrri bakoitzean bilketaz arduratzen diren mankomunitate guztiek hartuko dute parte.

Ereduak garraio- eta tratamendu-tasa bakarra izanen du, eta lurraldearteko solidaritatearen printzipioa lehenetsiko du. Ingurunearekin arduratsua izanen da, baina errealista aldi berean hondakinen planean ezarritako xedeak betetzeko.

Printzipio horien arabera hondakinen erakunde bat sortuko dugu tokiko mapa berrikusteko eratu dugun mahaiaren esparruan eta epeetan. Mahaiaren erabakiak 2024. urtean zehar itxiko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 5ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00015. Galdera, Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tafallaren eta Erriberriren arteko balizko bizikleta-bidearen azterlanari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafalla eta Erriberri arteko bizikleta bide posiblearen azterketari buruz (11-24/PES-00015). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Lurralde Kohesiorako Departamentuak aktiboki egin du lan Tafallako Udalarekin eta Erriberri-

ko Udalarekin udalerrri biak lotzeko bizikleta bide bat gauzatzeko. Marko horretan kokatzen da Tafalla-Erriberri Bizikleta Bidea egiteko Alternatibaren azterlana, 2021eko irailekoa, Trail Project delakoak egina.

2. 2021eko ekitaldian aurrekontu zuzkidura eman zen jarduketarako, "230002 23200 7609 441104 Plan Reactivar Convenio movilidad Tafalla Olite" deritzon partidaren bidez, guztizko gehieneko zenbatekoa 18.000 eurokoa izanik.

3. 2024ko lehenengo hiru hilabeteetan aurreikusten da toki erakundeek bizikleta azpiegiturak egikaritzeko laguntzen bigarren deialdia egitea, 2.000.000 euroko zenbatekoan, 2024an eta 2025ean egikaritzeko. Aipatutako jarduketak finantzaketa bide hori izaten ahalko du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-24/PES-00016. Galdera, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022ko ekainean metabertsorako ezarritako mugarriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak 2022an metabertsorako markatutako xedeek buruz (11-24/PES-00016). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Duela egun batzuk PEI0047an jakinarazi genizun bezala, Departamentu honek dituen xedeetako bat da berrikuntza digitaleko erdu praktikoa eta hurbila ematea Nafarroako herritarrei eta gizarte-

ri, pertsoneri, erakundeei eta enpresei bultzada ematea espazio horretara batzeko, eta, horrez gainera, Nafarroa eta nafarrak teknologiaren eta berrikuntzaren abangoardian kokatzea, ekimen enpresarialean eragina izanda komunikatzeko eredu berri horren hornitzaile eta erabiltzaile gisa.

Gure iritziz, gaur egun xede horiek betetzen ari dira.

Legegintzaldi honetako lan ildoen berri eman nuen agerraldian berriki proiektatu ziren irudietan egiaztatuko zenuenez, bultzada horren markoan, metabertsoan dagoeneko jarrita dago 3D antena bat, Nasertic enpresak emana, Nafarroan ditugun eta telebista, irratia, telefonia eta larrialdietako seinaleak, besteak beste, transmititzen dituzten ehun telekomunikazio zentro baino gehiagoren erabilgarritasuna ilustratzeko balio duena.

Gainera, gure iritziz, metabertsoak tresna erabilgarria izaten jarraituko du etorkizunean, eta, horregatik, bilerak egiten ari gara Nafarroako beste eragile batzuekin, haien proposamenak ezagutzeko eta Gobernuak plataforma horretan duen espazioa herritarrentzat erabilgarriena den horretara egokitzeko.

Ildo berean, beste batzuetan jakinarazi dizugun bezala, CNAIrekin ere lanean dihardugu prestakuntzako ekimenetan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 15ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalerako kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-24/PES-00017. Galdera, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erregelamenduzko garapenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-24/PES-00017 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian jasotako erregelamendu bidezko garapenari buruz. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

1. Gobernuak zergatik ez du erregelamendu bidez garatu Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa, nahiz eta lau urte eta erdi baino gehiago joan diren foru legea indarrean sartu zenetik?

Nafarroako Gobernua tresna fiskal hori abian jartzen hasi zen 2018an bertan, eta Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak azterlan bat eskatu zion ENTri (Environment and Management) "Hondakinak tratatzeko instalazioen kokapenagatik konpentsazioak emateko ereduaren aurretiazko esplorazioari" buruz 2018ko urrian. Bertan adierazten zenez, Espainian ez zegoen arauzko markorik udalerriei konpentsazioak ematearen inguruan hondakinak tratatzeko instalazioen kokapenagatik.

2019ko maiatzean, Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak azterlan bat eskatu zion Mar Isla delakoari, honako honi buruz: "Hondakinak tratatzeko instalazioen kokapenagatik konpentsazioak emateko sistemaren proposamena". Bertan, indemnitzatzeko hiru neurri mota zehaztu ziren etxeko hondakin, hondakin komertzial eta hondakin industrial ez arriskutsuen zabortegei¹ publiko mankomunatuak

funtzionamenduan dituzten Nafarroako udalerrietarako; izan ere, asimetria zegoen mankomunitatearen kolektibo osorako ingurumen zerbitzuen irabazien eta instalazioak kokatuta dauden udalerrietako ingurumen kostu potentzialen artean:

KONTZEPTUAK	PROPOSAMENEAN JASOTAKO NEURRIAK
INGURUMEN ZERBITZUAK	1. Hondakinen Funtsean urtean % 5eko erreserba egitea zabortege publiko mankomunitatuak dituzten udalerrietan ekintzak egiteko
INTERES OROKORRERAKO EKARPENA (indemnizazio ekonomikorako proposamenak)	2. Lurzoru komunalaren prezioa eta udalerrri bereko nahiz ingurune konparagarriko lurzoru publiko industrialaren prezioa parekatzea
	3. Indemnizazioa instalazioen jabe edota kudeatzaile diren erakunde independenteak eta administrazio publikoak udaleko fiskalitatek exentuegotearen ondorioz lortu gabeko irabaziagatik.

2019ko ekainean, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren foru aginduaren zirriborro bat egin zen hondakinak tratatzeko instalazioak kokatuta dauden udalerriek jaso beharreko indemnizazioaren sistema ezartzeko, horren barnean sartuta Ingurumen Zerbitzuengatik Indemnizazioa (Hondakinen Funtsean urteko % 5eko erreserba), kopurua okupatutako azalerarekiko proportzionala izanda, hondakin motaren arabera haztatuta (hondakin ez arriskutsua edo hondakin geldoa), baita interes orokorrerako ekarpenagatik indemnizazioa ere, instalazioaren titularrak berori kokatuta dagoen udalerriri ordaintzekoa bi irizpideren arabera: Lurzoru komunalaren prezioa eta udalerrri bereko nahiz ingurune konparagarriko lurzoru publiko industrialaren prezioa parekatzea, eta Indemnizazioa instalazioen jabe edota kudeatzaile diren erakunde independenteak eta administrazio publikoak udaleko fiskalitatek exentuegotearen ondorioz lortu gabeko irabaziagatik.

14/2018 FLaren bosgarren xedapen gehigarriak adierazten duenez, indemnizazioak erregelamendu bidez zehaztu behar dira, eta, beraz foru dekretu bidez ezarri.

2020ko urrian, legegintzaldi berriarekin, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak eskatu zuen hondakinak kudeatzeko instalazioak eta azpiegiturak dituzten udalerriek jaso beharreko indemnizazioa arautzen duen foru dekretua sortzeko prozedura abian jar zedila. Hori horrela, 2020ko urriaren 9an, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren hasteko foru agindua argitaratu zen Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak eta instalazioak dituzten udalerriek jaso beharreko indemnizazioa arautzen duen foru dekretu bat sortu eta izapidetzeko prozedura abian jartzeko. 2020ko abenduaren 9an,

aldeaz aurreko kontsulta publikoaren azken tostena eman zen Hondakinak kudeatzeko azpiegiturak eta instalazioak dituzten udalerriei eman beharreko indemnizazioa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruz, 2020/10/27tik 2020/11/27ra bitarte iradokizunak aurkezteko izandako aldia igaro ondoren, eta adierazi zen ez zela ezein iradokizunik jaso. Horrenbestez, foru dekretuaren proiektuaren testua egiteari ekin zitzaion.

2021ean foru dekretuaren zirriborro bat prestatu eta indemnizazioaren zenbatekoa kalkulatzeko algoritmo bat sartu zen, zenbait irizpideren arabera:

Indemnizazioa erregelamenduz zehaztuko da hizpide diren instalazioen dimentsionamenduaren arabera, bai eta hondakinak behar bezala kudeatzen erakundeon ekarpenaren karga sozial eta ingurumeneko gehigarrien balorazioa kontuan hartuta ere.

Instalazioen dimentsionamendua zehazteko jardueraren baimen mota izanen da erreferentzia (ingurumen baimen integratua, ingurumen baimen bateratua edota beste baimen mota batzuk). Dimentsioa zenbat eta handiagoa izan, halakoa izanen da indemnizazioa.

Ingurumen karga eta karga sozial gehigarrien balorazioa honela zehaztuko da:

Ingurumen karga gehigarria. Karga zenbat eta handiagoa izan, halakoa izanen da indemnizazioa.

1. Hondakinak kudeatzeko baimen mota (G0X), zeinak zehazten baitu hondakin tratatua arriskutsua (HA) edo arrisku gabea (HAG) den:

2. Egiten den tratamendu mota:

- Balorazioa (R)
- Ezabatzea (D)

3. Egindako eragiketa mota hondakinen hierarkian duen posizioaren arabera.

Karga sozial gehigarria. Karga zenbat eta handiagoa izan, halakoa izanen da indemnitzazioa.

1. Instalazioa kokatuta dagoen udalerrriaren tamaina. Ukitutako biztanleak

2. Emandako zerbitzua: Instalazioak zerbitzatzaren dituen biztanleak:

- Etxeetako eta saltokietako hondakinak tratatzeko/biltegitratzeko instalazioak, zerbitzua hondakinen zer mankomunitateri ematen dioten kontuan hartuta.

- Hondakinen gainerako fluxuak tratatzeko/biltegitratzeko instalazioak: Nafarroako biztanleak prozesu bereko Nafarroako instalazio kopuruaren artean banatuta

Gerora, Idazkaritza Tekniko Nagusiak erabaki zuen, kargak zirenez hizpide (zerga, tasa, ...) ezin zela ezarri foru dekretu bidez; aitzitik, beharrezkoa zen ezarpena lege baten bidez onestea, eta hori ez zegoen Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren eskumenen artean.

2. Gobernuak noizko aurreikusten du erregelamendu bidezko garapena egitea eta zer jarduketa egin du epai hori betetzeko, zeinak Gobernu behartzen baitzuen "lehenbailehen" –eta betiere

epaia eman zenetik urtebeteko epean– Erriberako ozono-maila hobetzeko airearen kalitate-plan nahitaezkoak egitera?

Galdera ez dago ondo formulatuta. Horrenbestez, ezin dugu erantzunik eman. Eskertuko genuke galdera berriro formulatzea guk erantzun ahal izateko.

3. Gobernuaren ustez, zer udalek jaso litzakete kalte-ordain horiek bere udal-mugaratean hondakinak kudeatzeko instalazioak edo azpiegiturak edukitzeagatik?

Lehenengo apartatuko erantzunean adierazi denez, oraindik ere ez da zehaztu ukitutako udalerrien zerrenda. 2019an, indemnitzazioa zabortege publikoak dituzten udalerrietara mugatuta dagoenez, zerrendak lau zabortege baino ez zituen, eta, horrenbestez, lau udalerrri: Tuter, Cárcar, Arbizu eta Aranguren. 2021ean, hondakinak kudeatzeko edozein instalazio kontuan hartzean, kopurua 208 instalazio eta 80 udalerrikoa zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-24/PES-00018. Galdera, errehabilitazioko itxaron-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak errehabilitazioko itxarote-zerrendan dauden pazienteak Oinarrizko Osasun Laguntzan baloratuak izan daitezen Tuterako osasun-barrutian ezarritako neurriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Tuterako Osasun Barrutian Errehabilitazioko itxarote-zerrendako pazienteekin lotuta ezarritako neurriari buruz (11-24/PES00018). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

2023. urtean zehar, errehabilitazioko unitate periferikoen sarea handitzen amaitu da. Gaur egun, Tuterako Osasun Barrutiko osasun-eskualde oinarrizko guztiek dute unitate horietako bat (Tuterako osasun etxe biek partekatzen dute unitateetako bat). Errehabilitazioko unitate periferikoen bitartez, lehen Tuterako Ekialdeko Osasun-etxean eta Reina Sofia ospitalean soilik ematen zen zerbitzua deszentralizatu da.

Hasiera batean, unitate horiek banakako tratamenduak eskaintzen zizkieten konplexutasun arin-ertaineko patologia muskuloeskeletikoa eta osteoartikularra zuten pazienteei, Medikuntza Fisikoko eta Errehabilitazioko medikuek bideratuak. Azkenaldian Oinarrizko Osasun Laguntzako fisioterapiaren figura sartu denez, iaztik, Oinarrizko Osasun Laguntzako medikuek zuzenean deribatuta, taldeko tratamenduak ere eskaintzen ahal zaizkie bizkarrezur lunbarreko, zerbikaleko eta sorbaldako konplexutasun txikiko patologiak dituzten pazienteei, eta tratamendu indibidualak ematen ahal zaizkie aurrez Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Gaitasun Funtzionala Hobetzeko

Planaren barruko lantalde tekniko batean zehaztutako zenbait prozesutan.

Fisioterapiara zuzenean taldeka nahiz banaka deribatzeak aukera berri horrek Oinarrizko Osasun Laguntzako zerbitzu-zorroa eta artatzeko gaitasuna handitzea dakar.

Ekintza honetan datza: osasun-eskualde oinarrizko bakoitzean aparteko lanaldi batzuk egitea arratsaldean, Fisioterapiara zuzenean deribatzeak aukera baino lehenagotik errehabilitaziorako itxarote-zerrendan zeuden pazienteak zitzatzeko.

Osasun-eskualde oinarrizko bakoitzeko zentro batean egindako kontsulta horretan, Oinarrizko Osasun Laguntzako mediku batek pazienteak eta haren gaitzaren bilakaera baloratzen ditu. Hori guztia eta fisioterapiara zuzenean deribatzen ahal diren prozesuetatik aurrez ezarritako irizpideak oinarri hartuta, medikuak lau aukera hauetako bat har dezake:

- Taldeko fisioterapiara zuzenean deribatzea
- Banakako fisioterapiara zuzenean deribatzea
- Errehabilitazioko itxarote-zerrendan mantentzea
- Alta ematea

Neurri hori honako hauetan oinarrituta ordaindu da: 1635/2019 Ebazpena, abenduaren 31koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, zeinaren bidez ezartzen baitira Oinarrizko Osasun Laguntzaren eremuan ezohiko produktibitate-osagarriaren modulua eta baldintzak (670E/2020 Ebazpenak, uztailaren 30ekoak, aldatu zuen, 2020ko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin), eta 10/2021 Instrukzioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, Oinarrizko Osasun Laguntzaren eremuan pazienteen arretaren modulua egiteagatik aparteko produktibitate-osagarriari buruzkoa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-24/PES-00019. Galdera, desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakitekoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak desgaitasuna duten pertsonen osasun-garraioa egiteko protokolo bat ba ote dagoen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko urtarrilaren 26ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Domingo González Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko ea protokolorik dagoen desgaitasunen bat duten pertsonen garraio sanitarioak (11-24/PES-00019). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Ba al dago protokolorik mugitzeko laguntza (aulki elektrikoa edo gisakoren bat) darabilten desgaituei laguntza bermatzeko eta pertsona nahiz bere bizi-ekipamendua larrialdietako anbulantzietan eramatea bermatzeko?

Badago protokolo bat laguntza bermatzen diena anbulantzia asistentzietan garraiatuak izatea behar duten orori, nola bizi euskarri oinarritukoetan (SVB) hala bizi euskarri aurreratukoetan (SVA), zeinak larrialdietan eramateko baitira, eta bidean osasun laguntza behar izaten ahal duten pazienteei arreta emateko prestatuta daude. Anbulantzia horietan dauden langileek eta ekipamendu sanitarioak (8/2011 Foru Dekretua, otsailaren 7koa) ez dute aukerarik ematen gurgil-aulki bat bidaiari-lekuan finkatzeko.

Egunerokoan, bidean osasun laguntza behar ez duten pazienteak beren aulki propioan eramaten dituzte. Egoera horrek eragiten duen eragozpena da anbulantzietan instalatutako ainguralekuak eta gerrikoak ISO 10542 1 arauaren arabera frogatu eta homologatu direla gurgil aulkia finka-

tzeko. Askotariko aulkiak daude, diseinu, pisu eta ainguralekuak finkatzeko geometria desberdineta-koak. Modelo horietako batzuk ez daude egokituta aipatutako aruari.

Gurgil aulki elektrikoen kasuan gaineratu behar da zabalagoak eta astunagoak direla, eta finkatzeko sistemak ez datozela bat gurgil aulkietarako ISO/FDI 7176 19 arauan ezarritako betekizunekin. Homologatutako gerriko- eta ainguraleku-sistemarako prestatuta ez daudenez, ez da gomendatzen beroriek anbulantzietan eta egokitutako ibilgailuetan eramatea, erabiltzailearen segurtasuna eta gainerako bidaiariena kontuan hartuta eta istripua egonez gero sortzen ahal den legezko babesgabeziagatik.

Zuzena izan al zen larrialdietako anbulantziak desgaitasuna duen emakume horri emandako laguntza? Zuzena izan ez baldin bazen, zer ekimen abiarazi behar izanen zuen istripu hori artatu zuen kontingenteak?

Emandako osasun laguntza zuzena izan zen, pazienteak ez baitzuen osasun laguntza premiazko behar izan bidean, eta bere gurgil aulkia ezin delako finkatu anbulantzia asistentzial batean.

Zer neurri hartuko dira Gobernuak Nafarroako Osasun-garraiorako Enpresa Publikoa sortzeko akordiorako baliatu zuen dokumentazioan jasotzen den konpromisoa bermatzeko? Izan ere, horren helburua da osasun-garraioaren zerbitzua ematea halakorik behar duten pazienteei, segurtasun, irisgarritasun eta pazientearen beharrezaneki egokitasun baldintzetan eman ere.

Osasun garraio publikoko enpresa bat sortu da berriki, baina oraindik ere ez dira horretarako protokolo espezifikoak garatu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetz.

Iruñean, 2024ko otsailaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

